


# Prentsa oharra

## Nota de prensa



Garapen Ekonomiko  
eta Enplegua  
Desarrollo Económico  
y Empleo

### *Evolución mensual del paro por género*



## DONOSTIAK EUSKADI OSOKO LANGABEZIA-TASARIK TXIKIENA ERREGISTRATU DU

Joan den ekainean erregistratutako langabezia tasa % 7,3ra iritsi zen Donostian, Euskadi osoan eta Gipuzkoan langabezia azkarren murrizten duen euskal hiriburua izanik. Langabezia % 2,7 jaitsi zen ekainean maiatzarekin alderatuta, eta % 11,2 aurreko urteko ekainarekin konparatuta.

"Zifra oso onak dira – adierazi du Ekonomia eta Enplegu zinegotzi Marisol Garmendiak –, baina gaur egun 6.375 donostiar langabezian daude, eta arlo horretan bereziki sentikorrek diren kolektiboetako pertsonentzat enplegua sortzen eta lan-merkatuan sartzen aurrera egingo duten politika eta programetan eragin behar dugu, hala nola gazteak, 45 urtetik gorakoak eta emakumeak. Izan ere, genero-aldea 1,5 puntukoa da Donostian, eta emakumeen langabezia % 8koa da, eta gizonena, berriz, % 6,6koa".

Donostian langabezia % 7,3 da, Gipuzkoan % 7,9 eta Euskadi osoan % 9,9.

Langabezia-tasa handiena 55 urtetik gorakoen artean erregistratu da ( % 36), ondoren 45-55 urte bitartekoen artean ( % 24), 35-45 urte bitartekoen artean ( % 18) 25-35 urte bitartekoen artean ( % 15) eta, azkenik, 25 urtetik beherakoen artean ( % 7). Langabeziaren beherakada adin-tarte guztietan erregistratu da ekainean. Bi alderdi aipagarri: Donostiak, proportzioan, 45 urtetik gorako langabetu gehiago ditu Euskadi osoan baino, eta, aldiz, gazteen langabezia txikiagoa du.

Ekainean 9.661 kontratu sinatu ziren, maiatzean baino % 20 gehiago, eta kasu honetan gehiago izan ziren emakumeenak gizonenak baino. Sektoreka, zerbitzu operatiboak (aholkularitzak, aholkularitzak, finantzak...) ostalaritzari, osasun-zerbitzuei eta gizarte-zerbitzuei, enpresa-zerbitzuei eta merkataritzari zegozkien kontratu gehienak.